

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA	KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENA		
IRAUPENA	1.5ordu	EGUNA	2016-09-22
GAIA		DEIALDIA	

PARTE HARTZAILEAK

Jexux Gorrotxategi	Leire Murua	Endika Igarzabal	Xabat Goikoetxea
Ibon Elgarresta	Xabier Barriola	Talex	

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
UDALEKO WEBGUNEA	<ul style="list-style-type: none"> • Gattikenek webgune berriaren lehen bertsio bat aurkeztu digu. Eduki gutxirekin, baina formatu aldetik oso aurreratua. • Hasierako hainbat zati desberdin ditu: Harremana (eskariak egiteko, kontaktua, mapa...), kirol instalakuntzak (frontoia, bolatokia, Aztiriko bolatokia, futbol zelaia... bakoitzaren kokapena eta zehetasunak), kultur etxea (kokapena, ordutegia...), Osasuna, Batzordeak (aktak, hurrengo datak...), Ikastaroak, Makilari... nahi diren guztiak jarri daitezke. • Udal albisteentzako zati bat dauka: bandoak, aktak, berriak... • Gabiria denon artean: herriko eragile desberdinek izango lukete zati honen erabilera, eta bakoitzak nahi duen informazio/berriak jarria ahalko dira. Herrian egiten diren gauza guztien leiho bat izatea du helburu zati honek. • Agenda: egutegi bat, herriko ekintzen data, orduak jasoko dituena. • Gehitu litezkeen gauzak: baserrien izendegia (mapan kokatuta), herriko mugarrak (mapan), historiaren txokoa (herriko eta inguruko historia), festetako programen historiala, argazki zaharrak, herriko ekintzen bideoak (festak, bertsoak...), bertako produktuak nola lortu/zer dagoen, • Jarrita dagoen informazioa webgune zaharretik hartu da, beraz osatu beharra dago (edukiz, argazkiz, zati berri gehiago...). Errebisatzea komeni da, eta ideia berri gehiago ere ondo leudeke osatzeko. • Programarenbat instalatuta omen dago herritar bakoitzaren informazioa automatikoki webaren bitartez lortzeko. Jasonek jakingo omen du eta, galdetuko diogu. • Bilera bat egin beharko da, lan handia dago web hau taxuz osatu ahal izateko. 		

HURRENGO BILERA: URRIAK 20, 19:00tan